

## MOTA DESBERDINETAKO KOSTUAK

- **KOSTU FINKOAK:** Puntu hontan, lokala, makinaria eta langileen soldata sartuko genituzke kostuak bezala.
  
- **Plastiko ebakitzailea (DAHLE markakoa)**  
Horrelako makina baten prezioa **245,33** eurokoa da eta guk hasiera batean 3 erosteko asmoa dugu, guztira **735,99** euro ordainduz.  
ERAGIKETA:  $245,33 \times 3 = 735,99$  euro
  
- **Lokala:** Gasteizko Kale Kapalamendi 1.an dagoen **346 m<sup>2</sup>**-ko lokala da.  
2 aukera ezberdin ditugu: **198.000** eurotan erosi edo alokairuan hartu hilabetean **575** euro ordainduz. Bigarren modua hautatu dugu, eta urte batean zenbait ordainduko genuke kalkulatu dugu, **6.900** euro.  
ERAGIKETA:  $575 \times 12 = 6.900$  euro
  
- **Ura, argia eta elektrizitatea**  
Ura, argia eta elektrizitatearen hileko prezioa kalkulatzeko, **65 m<sup>2</sup>**-ko pisu batean 3 pertsonak ordaintzen duten kantitatearen informazioa eskuratu dugu, eta kantitate hori eta hiruko erregela erabiliz guk ordainduko genukeena kalkulatu dugu eta pertsona gehiago izango garenez, kantitate horri 88 euro gehitu ditugu. Ondoren, kantitate hori urtean zenbatekoa izango litzateke kalkulatu dugu, **4.248** euro  
ERAGIKETAK:
  - $(50 \times 346) : 64 = 266$  euro
  - $266 + 88 = 346$  euro
  - $346 \times 12 = 4.248$  euro
  
- **Langileen soldata**  
**3** langile izango ditugu eta hauek **950** euroko soldata jasoko dute, horrenbestez, hilean **2.850** euroko gastua suposatuko dute eta urtean **34.200** eurokoa.  
ERAGIKETAK:
  - $950 \times 3 = 2.850$

-  $2.850 \times 12 = 34.200$

● **KOSTU ALDAKORRAK:** Erabili beharreko materialak produktua ekoizteko

- **PET plastikoa**

Prezio zehatzik aurkitu ez dugunez, hurrengo link-ean azaltzen den inportazio prezioa erabili dugu kostua kalkulatzeko, bertan prezioa herrialdeko agertzen da. Gut Italia aukeratu dugu gertutasunagatik eta bertako merkatua Espainiakoaren antzekoa delako, gainera prezioa lehiakorra da. Prezioa lurraldekoa izan arren, gure probedore bezala Scatolificio Arca-Box Di Fasoli Gabriella enpresa hartu dugu.

PET plastiko kilo batek **2,376** euro balio ditu, gure lente bakoitzak **0,002** kg pisatuko ditu eta kontuan izanda pakete bakoitzean **24** lente daudela **0,048** kg beharko ditugu paketeko. Kontuan izanda **182.160** pakete saltzeko asmoa dugula lehen urtean, **8.744** kg beharko ditugu gutxi gora behera, **20775,75** euroko gastua suposatuko luketenak.

ERAGIKETAK:

- $0,002 \times 24 = 0,048$  kg
- $0,048 \times 182160 = 8.743,68$  kg
- $8743,68 \times 2,376 = 20.775,75$  euro

- **Gel moldagarria**

Gel moldagarria akrilamidozko kopolimeroa, sodiozko akrilatoa eta ura nahastuz egiten da. Beraz, akrilamidazko kopolimeroa eta sodiozko akrilatoa beharko ditugu.

Akrilamidozko kopolimero eta sodiozko akrilato kilo batek **2,7** dolar balio ditu, gure lente bakoitzak **0,002** kg pisatuko ditu eta kontuan izanda pakete bakoitzean **6** lente daudela **0,012** kg beharko ditugu paketeko. Kontuan izanda **182.160** pakete saltzeko asmoa dugula lehen urtean, **2.186** kg beharko ditugu

gutxi gora behera, **5.902,2** dolarreko gastua suposatuko luketenak, **4.862,68** euro. ( 2020/12/15 datan jasotako datuen arabera)

ERAGIKETAK:

- $0,002 \times 6 = 0,012 \text{ kg}$
- $0,012 \times 182.160 = 2185,92 \text{ kg}$
- $2186 \times 2,7 = 5902,2 \text{ dolar}$

- ***Goraiza toleskorrak***

Gure online dendan salduko ditugun leiharrek, Raybanek eta Multioptikasek saldutakoak ez bezala, ez dute betaurrekoen forma zehatza izango, gutxi gora beherako karratu forma baizik. Horrgatik, paketeen goraiza batzuk datoz bezeroak leiharra erraz eta azkar moztu ahal izateko bere beharretara modu perfektu eta zehatzean egokitu daitekeen. **364.320** goraiza behar ditugu, eta **8**ko pack-a aurkitu dugu **12,99** eurotan, beraz, **45.540** pack behar ditugu eta hauek **591.564,6** euroko gastua sortuko digute.

ERAGIKETAK:

- $364320 : 8 = 45.540 \text{ unitate}$
- $45540 \times 12,99 = 591.564,6 \text{ euro}$

- ***KOSTU TOTALAK***: Guztirako kostuak kalkulatu ahal izateko beste kostu guztiak batu ditugu, guztira **662.551,03** eurokoak dira.

ERAGIKETA:  $735,99 + 6.900 + 4.248 + 34.200 + 20.775,75 + 4.862,68 + 591.564,6$   
 $= 662.551,03$

## FINANTZIAZIOA

Gure enpresa sortzeko behar dugun kapitala lortzeko hainbat baliabide erabili ditugu, urte baterako aurreikusitako ekoizpena finantziatu nahi baitugu hasierako inbertsioarekin. Alde batetik, guk, enpresaren 4 jabeek, **60.000** euro jarriko ditugu gure aurrezkietatik **200.000** euro amortizatuz. Beste aldetik, **155.000** euro BBVA bankuari eskatutako enpresa maileguaren bidez lortuko ditugu. Kantitate hau, 3 urteko denbora-tartean ordainduko dugu hiruhilabetero eta honen arabera, interesa % **2,47**koa izango litzateke, kontuan izanda interes nominala %**1,55**koa dela. Hurrengo taulan adierazten den modua ordainduko dugu:

<b>Cuota:</b> 13.244,31€					
<b>Importe total:</b> 158.931,74€ ⓘ					
<b>Intereses totales:</b> 3.931,74€					
<b>Cuadro de amortización</b>					
Periodo	Cuota	Intereses	Cuota amortización	Capital amortizado	Capital vivo
0					155.000,00€
1	13.244,31€	600,63€	12.643,69€	12.643,69€	142.356,31€
2	13.244,31€	551,63€	12.692,68€	25.336,37€	129.663,63€
3	13.244,31€	502,45€	12.741,87€	38.078,23€	116.921,77€
4	13.244,31€	453,07€	12.791,24€	50.869,47€	104.130,53€
5	13.244,31€	403,51€	12.840,81€	63.710,28€	91.289,72€
6	13.244,31€	353,75€	12.890,56€	76.600,84€	78.399,16€
7	13.244,31€	303,80€	12.940,52€	89.541,36€	65.458,64€
8	13.244,31€	253,65€	12.990,66€	102.532,02€	52.467,98€
9	13.244,31€	203,31€	13.041,00€	115.573,02€	39.426,98€
10	13.244,31€	152,78€	13.091,53€	128.664,55€	26.335,45€
11	13.244,31€	102,05€	13.142,26€	141.806,81€	13.193,19€
12	13.244,31€	51,12€	13.193,19€	155.000,00€	0,00€

Horrez gain, egindako akordioetatik **300.000** euro aterako ditugu, izan ere gurekin lan egingo duten enpresek **150.000** euro ordainduko dizkigute produktuaren eta hainbat baldintza bereziren truke.

Azkenik, gobernuak eskainitako hainbat laguntza eskuratu ditugu:

- **Instrumento PYME de la Comisión Europea:** **50.000** euroko diru-laguntza eskaintzen da funts-galdura.
- **Financiación Enisa:** Ekintzaile gazteentzako finantziazioa, interes eta epe malguagoak dituen, hemendik **75.000** euro lortu ditugu.
- **Subvencion del tipo interes:** Bankuari edo beste entitate bati ordaindu beharreko interesa ordaintzeko laguntza eskaintzen du, interesetatik **10.000** euro ordainduko dizkigu.